

KOSTU EGITURAK

Kostuak enpresa batean sortzen diren diru irteerak dira, ordaindu beharreko gastuak.

Txakurren Irribarrea, irabazi asmorik gabeko proiektua den arren, baditu ordaindu beharreko zenbait gastu.

Kostuak finkoak edo aldakorak izan daitezke.

Kostu finkoetan, ekoizpena aldatzen denean, handitzen edo txikitzen denean, ez direla aldatzen. Hau da, ekoizpen mailarekiko independenteak direla.

Kostu aldakorrean, berriz, ekoizpen mailarekiko proportzionalak direnak dira. Beraz, ekoizpena handitzen denean, hauek ere handitzen dira eta alderantziz.

Gure kostu finko bakarra, webguneraren hostinga da. Webgunearen hostinga interneten zure web propioa izateko espazioa alokatzea da. Bere kostua hilabetero 150€-koa da, beraz, balio hori ordaintzea derrigorrezkoa dugu.

Ez dugu leku fisikorik, hori dela eta, ez dugu alokairurik ordaindu behar. Kudeaketa lanak, gure etxetik egingo ditugu.

Kostu aldakorren artean, ondorengoak aipatu behar ditugu:

Gure ekintzak eta material bilketa kanpainak ezagutarazteko publizitatearen kostua, adibidez, kartelak eta flyer-ak. Aldakorra bezala sartu dugu, izan ere, inprimatu beharreko aleak antolatutako ekintza kopuruaren arabekoak dira. Bere kostua (150 kartel (1,50€ bakoitzak) + 180 flyer (0,50€ bakoitzak), hau da, guztira 315€.

Txapelketetan eta lasterketan parte hartuko dutenen aseguruua. Aldakorra da ere parte-hartzaile kopuruaren arabeko izango delako. Bere kostua, jakinda, canicrossen 25 txakur daudela, futbol txapelketan 20 eta frisbee txapelketan 30 daudela, 225€-ko aseguruua ordaindu beharko genuke.

Txapelketak aurrera eramateko beharrezko materialak: pilotak, frisbeak, balizak, seinaleak... kostu aldakorra izango litzateke. Bere kostua, guztira, 160€ izango litzateke, baloi, frisbee eta abar batuta. Materialaren bilketa egiteko kutxek bakoitzak 5€-ko kostua izango luke baina kostua aldakorra denez, ezin da zehaztu.

